

OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLA



Herri Musika Eskolaren Eguneko ikasleen emanaldia

Oiartzungo Udalaren babesarekin Herri Musikaren Txokoak antolatu eta kudeatutako Oiartzungo Herri Musika Eskola sendo jarraitzen du bere bidea.

Bere sorreratik Herri Musikaren Txokoak dituen helburuetako bat, gure inguruan herri musika ezagutaraztea, zabaltzea eta indartzea izan da. Hori modu askotan landu behar da eta besteren artean soinu jole edo musikari onak izateko baldintzak eskeiniz lortzen da, eta asmo eta helburu horrekin sortu zen Oiartzungo Herri Musika Eskola antolatzeko egitasmoa.

Euskal herri musikaren soinu-tresnen erakusteko bide hori aspaldidanik abiatua zen Oiartzun aldean, bai Txistu Eskolarekin eta Trikitixa Eskolekin ere. Funtzionatzen zuena kontuan harturik, horien osagarriz, martxan jarri genuen Oiartzungo Herri Musika Eskolaren hasiera izango zena: 1999. urtean Txalaparta Eskola eta 2002. urtean Alboka Eskola. Hasiera hartan, bi eskola haiek Oiartzungo Udalak babesten zituen helduentzako ekintza eta ikastaroetako egitarauen artean kokatzen zirelarik.

Lehenbiziko hiru kurtsoetan txalaparta irakaslea Hernaniko Txalaparta Eskolako Felipe Ugarte izan zen. 2001-2002 ikasturtean hiru maila eta taldeetan banaturik hamar ikasle izan ziren. 2002-2003 ikasturtean Txalaparta Eskolaz gain Alboka Eskola martxan jarri genuen. Txalapartan hamalau ikasle izan ziren eta irakaslea Hernaniko Txalaparta Eskolako Iñigo Monreal zen. Alboka ikasteko berriz zazpi ikasle izan ziren Hernaniko Alboka Eskolako Haritz Ezeiza irakaslea zelarik.

Bi kasuetan ikasturtearen iraupena 8 hilabetekoa zen (urritik maiatzara). 2003-2004 ikasturtean txalaparta

ikasle, hiru maila eta taldeetan banaturik, 30 izan ziren: 1. mailako 19 ikasle, 2. mailako 5, 3. mailako 3 eta 4. mailako 3. Albokan zortzi ikasle.

2004-2005. ikasturtean Herri Musika Eskolaren bilakaeran beste urrats bat eman genuen. Aurreko lau ikasturteetan Herri Musika Eskola Oiartzungo Udalak babesten zuen "Helduentzako ekintza eta ikastaro"etako egitarauen banean. Ikasturte honetatik aurrera, Udalarekin batera Herri Musikaren Txokoak hartu zuen Herri Musika Eskola kudeatzeko ardura. Bestalde, hirugarren soinu-tresna jotzen ikasteko aukera zabaldu zen: Dultzaina edo gaita. Txalaparta ikasten 27 ikasle izan ziren Iñigo Monreal irakaslearekin, alboka klasean 10, eta dultzainarekin berriz, 3 ikasle Haritz Ezeiza irakaslearekin. Klase hauek Ergoiengo "Auzokalte" auzo elkarrean eman ziren.

2005-2006 ikasturtean beste urrats garrantzitsua eman dugu, "herri perkusio-tresnak" gai berria eskainiz. Ikasturte berrirako dugun matrikulazioa momentuz hauex da:

Txalaparta: guztira 36 ikasle 5 mailetan banaturik.

Alboka: 9 ikasle 2 mailetan
Dultzaina: 3 ikasle 2 mailetan
Herri perkusioa: 5 ikasle.

Beraz, Eskola honek jadanik bost ikasturteko ibilbide emankorra egin du. Ikusi dugun bezala hasieran gai bakar bat eskaintzen zuen eta egun bost eskaintzen ditu. Bestalde, Eskolaren emaitza edo fruituak nabarmenak dira. Harrotasunez esan dezakegu bertako ikasle taldeek azken urte hauetan beren musika eskainiz Oiartzun eta inguruko hamaika ekitaldietan parte hartu dutela. Alde horretatik oso adierazgarria izan da 2005ko Ekainaren 19-an eguerdiko 12-tan "Kontsejupian" (San Esteban plazan) aurreneko aldiz ospatutako OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAREN EGUNA.

Bertan gure eskolako dultzaina, alboka eta txalaparta ikasleek eta irakasleek hartu zuten parte. Eguna, arrakastatsua izatez gain, festa egun ederra izan zen eskolakoentzat eta hauen inguruan aritu zirenentzat.

Hau dena ikusirik, gure eskolak sendotasunez bizirik jarraituko duela eta aurrerago bere eskaintza zabaltzen joango delakoan gaude.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udazkeneko kontzertua

2005ko urriaren 22an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

ANSA AHIZPAK

Arantxa, Ainhoa eta Maider



Aranon, Nafarroan jaiok hirurak, txikitatik izan dute euskal kantuairen zirrikituetan arakatzeko gogoia. Ahizpak izanik, gustuko dute elkarrekin abestea. Nafarroako euskal kantu txapelketan hasi zuten beren ibilbidea gaztetxo zirelarik. Bertan lortutako garaipenek euskal kantu zahar

eta berriak uztartuaz aritzeko indarra eman izan die. Batik bat pianoa eta gitarra lagun hartuta euskal kantua, bere zabaltasunean izango dute kantaldiaren oinarri.

Zein atsegina den kantuan egitea. Lagunartean,

ospakizunetan, jai-giroan... edonola bilduta ere. Euskalduna eta kantaria izatea gauza bera dela entzun izan dugu harro-harro. Saia gaitezen, bada, kantaldi honetan, esandako hau errealitate bihurtzen.

udazkeneko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

**kontzertu honen
laguntzaileak:**



GAITEROS DE MORELLA

(Castellón)

Morellako gaiteroei (dulzaineroak, bertako hizkeran) buruzko datu zaharrenak XVI. mendekoak dira, baina izen-abizenaz ezagutzen den lehenbizkoa Agustín Gasulla "Gaitero" da, alpargateroa lanbidez, XIX. eta XX. mendeetan dultzaina eta danborra jo zuena. Berarekin ikasi zuen Joaquín Royo Ferrás "El Abuelo Garrafa"-k (1872-1947), dultzaineroen "dinastia" luze bati hasiera eman ziona. Bere anaiarekin jo zuen, gero bere semeekin. Erreleboa Joaquín Gasulla bere bilobak hartu zion beste senideekin... "Los Garrafes" familia honetatik kanpo Ramón Pallares Polok Julian Gasullaren danborrarekin jo zuen 1927tik 1936.era bitartean. Aipagarriak ere Juan Vives eta Casimiro Ripollés, azken hau gaita-egilea izanik. Oso ondo bereizten zuten gaitero haiek jardun bakoitzari zegokion doinua. Horretaz gain bi ahotsetan jotzen zuten, ahal zen neurrian eta hori, eskualde horretan, ez zen gauza ohikoa. 60 hamarkadan berriz, kanpotik zetorren dultzaineroa: Antonio Martí "Zoritako itsua" hain zuzen ere, bertako danborreroek lagunduta. 1970.an ordea, Morellako udalak garestiegia deritzo Zoritakoa ekartzeari eta Udal Musika Bandako tronpeta jole den Miguel Ortíri lanpostu baten truke, dultzaina ikasteko galdegiten dio. Honek baietz erantzuten du eta horrela dihardu 1975.era arte.

Berpizkundera 1977.an iritsi zen Antonio Ortí,

Jesús Royo, Julián Pastor, Miguel Ferreres eta Agustín Gasullaren eskutik. Hauek, zenbait doinu berreskuratzeaz gain, belaunaldi berriei dultzaina eta danborra jotzen erakutsi zieten. Ibilbide honetan "Morella Tocs Tradicionals de Dolçaina" diskaren grabazioa pausu oso esanguratsua ere bada.

2002.an Morellako gaiteroak Elkarte Kultural gisa eratzen dira, Udalarekin akordio baten bidez gaiteroaren biziraupena ziurtatzeko eta musika eskolan sartzeko, José Vicente Castel irakasle moduan hasten delarik.

Morellako festetan hartzen dute parte: San Julian, San Antonio, Vallivanako Errogatiba, Corpus Festa, Abuztuko Amabirjina, auzoetako eta gremio ezberdinen festak,... Eskualdeko beste herrietara ere joaten dira: Ortells, Chiva de Morella etabar. Atal honetan bereziki aipagarriak dira "Las Fiestas Sexenales" delakoak non gremio bakoitzak bere prozesiozko dantza ateratzen duen, bere dultzaina eta danborrarekin.

Gaur egun taldean 30 bat pertsona ari dira, nahiz eta Oartzunera hamar bat inguru etorriko diren.

Gaitak:

José Vicente Castel Ariño, José Luis Prats Pascual, Sergio Soro Martí, David Viñals Rallo. David Sorribas Segura, Marc Moles, Josep Adell Jovaní

Danborrak:

David Soro Martí, Juan Adell Monfort, Carlos Felius, Victor Prades.



Errepertorioa

Morellako festa egutegia

San Julian festaren joaldiak

San Antonioren festa

Vallivanako Errogatiba

Corpus Festa

Abuztuko Amabirjina

Fiestas Sexenales



ALBOKARIEN HERNANIKO 12. TOPAKETA

"HERNANI" Musika Eskola Publikoko "Alboka Taldea"k antolatutako 2005ko urriaren 1 eta 2an Albokarien Hernaniko 12. Topaketa ospatu da.

Aurreko edizioetako eskema jarraituz, honetako egitarau interesgarria prestatu zen, horrela urriaren 1 larunbatean, Bizkaiko albokari trebe eta goi mailakoa den Ibon Koteronek "Aire" bere azken diskoa zuzenean eskaini zuen boskote formazioarekin.

Urriaren 2 igandean alboka hotsek bete zituzten Hernaniko kale eta plazak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritako albokari taldeen joaldiekin eta horrekin batera alboka egileek prestatutako azken berrikuntzak.



Igandeko bazkarian, Hernanin

BISITARI KOPURUA

Ekaina: bisitari kopurua: 225

Antolatutako taldeak: 11

Uztaila: bisitari kopurua: 250

Antolatutako taldeak: 10

Abuztua: bisitari kopurua: 220

Antolatutako taldeak: 11

Iraila: bisitari kopurua: 51

Antolatutako taldeak: 4

Bisitari kopurua urrira arte: **9.857**

HERRI MUSIKAREN 4. JARDUNALDIAK

Danboliteroen iragana, oraina eta geroa
OIARTZUN, 2005ko azaroaren 26 eta 27an.

azaroaren 26. larunbata

10:00tik 14:00ra, Auzokalte aretoan

MINTEGIA

Alberto Jambrina: Los tamborileros en su contexto particular, análisis de algunos ejemplos en el oeste peninsular.

Mikel Aranburu: Bailes, función pública e identidad. Apuntes para una síntesis bibliográfica de los escritos sobre la historia del txistu vasco.

15:30etik 18:00ra, Auzokalten **MAHAI INGURUA**

Alberto Jambrina, Garikoitz Mendizabal, Iñaki Eguren, Ismael Yagüe, Mikel Aranburu, Raúl Madinabeitia

19:00an Oiarzungo Udaletxeko Areto Nagusian **DANBOLINTEROEN JAIALDIA**. Danbolinteroen eredu ezberdinak:

- Baztango xulubitariak: Patxi Larralde eta Jose Migel Iriarte

- Alberto Jambrina (Zamora)

- Bilbaoko udal txistu banda

Azaroaren 27. igandea:

10:00an, Auzokalte aretoan **TAILERRAK:**

Sabin Bikandi: Erritmoa gelan

Alberto Jambrina: toques de tamboril

17:00an Doneztebe Plazan **ERROMERIA:**

Donostiako udal txistulari taldea

Antolatzaileak:

Euskal Herriko Txistulari Elkarte

Herri Musikaren Txokoa

Babeslea:

Oiarzungo Udala

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

